

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

**EDUCACION**

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 52 bat milioi erabiliko ditu ikastetxe publikoetako eskola-garraiorako datorren ikasturtean

*12.000 ikasle inguruk erabiltzen dute egunero doako zerbitzu hori*

Miércoles, 05 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran bi erabaki hartu ditu eta, haien arabera, 52 bat milioi euro erabiliko ditu ikastetxe publikoetako eskola-garraioko zerbitzuak kontratatzen 2013-2014 ikasturtean; bederatzi lagunentzako ibilgailuekin (taxiak) edo bederatzi lagun baino gehiagoko ibilgailuekin (autobusak) egindako garraioa da.

Ikastetxe publikoetako eskola-garraioaren zerbitzuari esker, zentro horietan nahitaezko eskolaratze-adinean dagoen ikasle bakoitzak (bizi diren udalerrian garraio hori ez dutenak), doako garraio bide bat izan ahalgo dute garraio-zerbitzu hori dagoen udalerrira bertara eramateko.

Alde batetik, Gobernuak bederatzi lagunentzako ibilgailuak kontratatzen ditu, 3,1 milioi euroan (BEZ barne). Eskolako 60 bat eskola-bide hartzen ditu, eta egunero 114 toki-erakundeetako 350 bat ikasle eramaten dituzte, Nafarroa Iparraldeko udalerrira txikitakoak bereziki.

Bestalde, bederatzi lagun baino gehiagorentzako ibilgailuen garraioa kontratatzen dira 48,5 milioi euroko aurrekontuarekin (BEZ barne). 215 ibilbide hartzen ditu eta egunero 11.000 ikasle eramaten dituzte. Haiekin batera, ibilgailu askotan lekuak hutsik geratzen direnez, haiek nahitaezko irakaskuntza ondoko ikasleei doan uzten zaizkie (Batxilergoa, LHko zikloak...). Eskola-bide horien ibilbidean sartzen diren Nafarroako toki-erakundeak 620 dira. Alde horretatik, aipatu behar da hainbat bide udalerrira beretatik pasatzen direnez, 1.500 geldialdi egiten direla guztira.

Ikasturte honetan egunero garraiatzen diren nahitaezko eskolaratze-adineko ikasleak 11.500-12.000 dira (gutxi gorabeherako zifra, ikasturtea ez baita oraindik amaitu), eta azken bost urteetako antzeko datuak dira: 11.578 ikasle 2008-2009an; 11.415 2009-2010ean; 11.649 2010-2011n, eta 11.941 2011-2012an.